



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

UDALBATZARRAK 2014ko URTARRILAREN 28an EGINDAKO OHIKO BILKURAREN AKTA

2014ko urtarrilaren 28an, Alkizako Udaletxean, arratsaldeko 20.30etan, Jon Umerez Urrezola Alkatearen Lehendakartzapean behean aipatzen diren zinegotziak bildurik, ondorengo erabakiak hartu ziren :

ALKATEA : Jon Umerez Urrezola

ZINEGOTZIAK : Koldobika Jauregi Zinkunegi.
Jose M^a Aranzabe Urruzola
Onintza Gorostidi Murua
Jose Ramon Hernandez Cristobal
Uxue Etxebeste Eizagirre

Bere ezin etorria azaltzen dute: Leire Otegi Elola

IDAZKARIA: Ane Gomez Urteaga

Ondorengo gaiak aztertu eta erabaki ziren:

- 1. Aurreko bilkuretako akten onespena.**
2013ko abenduaren 10ean egindako ohiko bilkuraren akta.
- 2. Alkatetza ebazpenen berri ematea.**
- 3. Fakturak eta ordainketak.**
- 4. Itxurain Elkarteak eginiko 2013 urteko diru-laguntza eskaeraren azterketa, hala bada.**
- 5. Amañilik, Alkizako emakumeen Elkarteak eginiko 2013 urteko diru-laguntza eskaeraren azterketa, hala bada.**
- 6. Oilategitik Elkarteak eginiko 2012 urteko diru-laguntza eskaeraren azterketa, hala bada.**
- 7. 2013 urtean zehar irabazi xederik gabeko erakundeek aurkeztu dituzten diru-laguntza eskaeraren azterketa, hala bada**
- 8. Intxaur Handi baserriaren atzekaldean dagoen zubia konpontzeko baimena eskaera, hala bada.**
- 9. Alkizako Herri Ostatuako zerbitzu publikoaren ustiakuntza, luzatzeko onespena, hala bada.**
- 10. Alkizako Udala, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eskuratze**



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

zentralizatuko sistemari-Foru Kontratazioen Zentralari atxikitzeko onespena, hala bada.

- 11. Eskola ondoan dagoen lokala, eskola modura erabiltzeko, hau alokatzeko onespena , hala bada.**
- 12. Eskola ondoan dagoen lokalean, eskola modura egokitzeko egingo diren lanentzako obra baimena eskaera, hala bada.**
- 13. Beste batzuk.**
- 14. Erregu, galdera eta mozioak.**

.../...

LEHENENGO PUNTUA **AURREKO BILKURETAKO AKTEN ONESPENA**

- 2013ko abenduaren 10eko ohiko bilkuraren akta. Irakurri ondoren bertaratuek aho batez onestu dute.

Akta Udaletxeko Iragarki Taulan eta Web orrialdean argitaratzea erabaki da.

BIGARREN PUNTUA **ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA**

Ondoren aipatzen diren Alkatetza Ebazpenak eman direla adierazi du Udaleko Behin Behineko Idazkari-Kontuhartzaileak, bertaratuak jakinaren gainean geratu direlarik:

40/2013 Alkatetza Ebazpena, abenduaren 23an, Alkizako udaleko 2013 urteko bigarrenko sei hilabeteko zabor tasaren udal errolda onartzea, ebazten duena.

41/2013 Alkatetza Ebazpena, abenduaren 10ekoa, 3/2013 Kreditu Aldaketa espedienteari hasiera ematea, ebazten duena.

42/2013 Alkatetza Ebazpena, abenduaren 23ekoa, Ura eta zabor tasen hobari eskaerak onartzea, ebazten duena.

43/2013 Alkatetza Ebazpena, abenduaren 23ekoa, 2014ko ekaineko paga aurreratzeko prozedura onestea, ebazten duena.

01/2014 Alkatetza Ebazpena, urtarrilaren 14koa, Eneko Iturbe arkitekto teknikoak eginiko proiektua onestea, ebazten duena.

01 bis/2014 Alkatetza Ebazpena, 2014ko ekaineko paga aurreratzeko



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

onespena ematea, ebazten duena.

02/2014 Alkatetza Ebazpena, urtarrilaren 14koa, Eneko Iturbe arkitekto teknikoak eginiko proiektua onestea, ebazten duena.

03/2014 Alkatetza Ebazpena, 2014/01 kreditu aldaketari hasiera ematea onestea, ebazten duena.

04/2014 Alkatetza Ebazpena, 2014/01 kreditu aldaketa onestea, ebazten duena.

HIRUGARREN PUNTUA **FAKTURAK ETA ORDAINKETAK**

Ondorengo faktura zerrenda aurkeztu zen:

- CONSUELO URTEAGA	1.379,40€
- XINGOLA	405,59€
- TOLOSALDEA GARATZEN	480,00€
- PAGADI	475,60€
- IZADI	152,94€
- MOVISTAR	217,47€
- URAK	705,43€
- EBA ERKIZIA	675,61€
- BULEGOAK	157,86€
- CARPINTERIA ATARI	1.222,10€
- AUDAX	454,95€
- AUDAX	168,19€
- EBA ERKIZIA	415,11€
- ARGITU ASESORES	171,80€
- ORONA	841,25€
- REPSOL	374,93€
- REPSOL	395,29€
- REPSOL	1.014,36€

Gaia azterturik bertaratuek aho batez ondorengoa,

ERABAKITZEN DUTE

LEHENA.- Guztira **9.707,88** eurotako kopurua duen faktura zerrendari onespena ematea.



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

LAUGARREN PUNTUA

ITXURAIN ELKARTEAK EGINIKO 2013 URTEKO DIRU-LAGUNTZA ESKAERAREN AZTERKETA, HALA BADA

Ikusirik Itxurain Elkarteak aurkezturiko idatzia, non euren proiektuak aurrera eramateko Alkizako Udalari diru-laguntza eskaera egiten dion.

Gaia azterturik, Udalbatzak, Koldobika Jauregi zinegotziaren abstentzioarekin, gehiengoz, ondorengo,

ERABAKITZEN DU:

LEHENA.- Itxurain Elkarteari 960 eurotako diru-laguntza ematea euren proiektuak aurrera eramaten laguntzeko eta aipaturiko gastua onartzea.

BIGARRENA.- 2013 urteko udaleko aurrekontuan partida nahikoa aurreikusten da.

HIRUGARRENA.- Itxurain Elkarteari jakitera ematea, egin duen proiekturen memori bat aurkeztu beharko duela, Udalak emandako diru-laguntza zurituaz.

LAUGARRENA.- Akordio honen berri interesdunari ematea.

BOSTGARREN PUNTUA

AMAÑILIK, ALKIZAKO EMAKUMEEN ELKARTEAK EGINIKO 2013URTEKO DIRU-LAGUNTZA ESKAERAREN AZTERKETA, HALA BADA

Ikusirik Amañili, Alkizako emakumeen Elkarteak aurkezturiko idatzia, non bere jarduera eta antolatu duen hainbat ekintza aurrera eraman ahal izateko Alkizako Udalari diru-laguntza eskatzen dion.

Gaia azterturik, Udalbatzak, Onintza Gorostidi-ren abstentzioarekin, aho batez, ondorengo,

ERABAKITZEN DU:

LEHENA.- Amañili, Alkizako emakumeen Elkarteari 320 eurotako diru-laguntza ematea bere jarduera eta antolatu dituen hainbat ekintza aurrera eramateko.

BIGARRENA.- 2013 urteko udaleko aurrekontuan partida nahikoa aurreikusten da.



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

HIRUGARRENA.- Amañili Elkarteari jakitera ematea, antolatu dituen ekintzen memori bat aurkeztu beharko duela, Udalak emandako diru-laguntza zurituaz.

LAUGARRENA.- Akordio honen berri interesdunari ematea.

SEIGARREN PUNTUA

OILATEGITIK ELKARTEAK EGINIKO 2013 URTEKO DIRU-LAGUNTZA ESKAERAREN AZTERKETA, HALA BADA

Ikusirik Alkizako "Oilategitik" Kultur Elkarteak aurkezturiko idatzia non bere aldizkariaren hamargarren alea argitaratzeko asmoa dutela adierazten duen eta Udalarari diru-laguntza eskatzen dion.

Gaia azterturik, Udalbatzak, Jose Mari Aranzaberen abstentzioarekin, aho batez, ondorengo,

ERABAKITZEN DU:

LEHENA.- "Oilategitik" Kultur Elkarteari 1.500 eurotako diru-laguntza ematea eta aipaturiko gastua onartzea. Alkizako Udaletxean ale bat utzi beharko dutelarik.

BIGARRENA.- 2013 urteko udaleko aurrekontuan partida nahikoa aurreikusten da.

HIRUGARRENA.- Oilategitik Kultur Elkarteari jakitera ematea, gastuen kitapena Udal honetan aurkeztu beharko duela.

LAUGARRENA.- Akordio honen berri interesatuari ematea.

ZAZPIGARREN PUNTUA

2013 URTEAN ZEHAR IRABAZI XEDERIK GABEKO ERAKUNDEEK AURKEZTU DITUZTEN DIRU-LAGUNTZA ESKAERAREN AZTERKETA, HALA BADA

Ikusirik 2013 urtean zehar irabazi xederik gabeko erakundeek Alkizako Udaletxean aurkeztu dituzten diru-laguntza eskaerak.

Ikusirik Behin Behineko Idazkari Kontuhartzaileak adierazi duela diru-laguntzak esleitzeko azaroaren 17ko 38/2003 Legeak xedaturikoa hartu beharko litzaketela kontutan.

Ikusirik 2013 urterako Alkizako Udalaren aurrekontuan partida nahikoa



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

aurreikusi dela.

Gaia azterturik Udalbatza honek aho batez ondorengoa,

ERABAKITZEN DU:

LEHENA.- Irabazi asmorik gabeko ondorengo erakundeei diru-laguntza esleitzea:

- Nafarroa Oinez 2013. 100,00 euro.
- Herri Urrats 2013 100,00 euro.

GUZTIRA 200,00 euro

BIGARRENA.- Interesdunei akordio honen berri ematea.

ZORTZIGARREN PUNTUA

INTXAUR HANDI BASERRIAREN ATZEKALDEAN DAGOEN ZUBIA KONPONTZEKO BAIMENA ESKAERA, HALA BADA

Ikusirik L.M.S. jaunak eginiko eskaera, non azaltzen duen Intxaur Handi Baserriaren atzekaldean dagoen zubiaren zati bat erori egin dela, izan diren eurite handigatik.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

BAKARRA: Intxaur Handi etxearen atzekaldean dagoen zubia konpontzeko baimena ematea.

BEDERATZIGARREN PUNTUA

ALKIZAKO HERRI OSTATUKO ZERBITZU PUBLIKOAREN USTIAKUNTZA, LUZATZEKO ONESPENA, HALA BADA

Ikusirik 2012ko ekainaren 26an ospatutako Udalbatzarrean Herri ostatu jatetxearen zerbitzu publikoaren kudeaketa I.V. eta D.L. jaunei eman zitzaizela, baldintza ekonomiko administratibo pleguak aurreikusitako baldintzapean.

Ikusirik 2013ko urtarrilaren 29an egindako Udalbatzarrean Herri ostatu jatetxearen zerbitzu publikoaren kudeaketa I.V. eta D.L. jaunei, hemendik



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

aurrera Carolina Sanchez y Otros C.B.-eri urte betez luzatu zitziola, baldintza ekonomiko administratibo pleguak aurreikusitako baldintzapean.

Ikusirik, Carolina Sanchez y Otros C.B. osatzen duen kide batek, hau da D.L. jaunak Herri ostatu jatetxearen zerbitzu publikoaren kudeaketarekin jarraitu nahi duela, aipaturiko C.B. a desegertuaz,

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: D.L. jaunari Herriko ostatu jatetxearen zerbitzu publikoa kudeatzeko kontratua sei hilabetez luzatzea (2014ko ekainaren 30arte). Epe hau bukatu ondoren, Udalak berriro baldintzak aztertuko ditu, eta ondoren (bi alderdien on iritziarekin) dagokion luzapena emango duelarik.

BIGARRENA: Alkate-Lehendakaria ahalmentzea, kontratu luzapena sina dezan.

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri D.L. jaunari ematea.

HAMARGARREN PUNTUA

ALKIZAKO UDALA, GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN ESKURATZE ZENTRALIZATUKO SISTEMARI-FORU KONTRATAZIOEN ZENTRALARI ATXIKITZEKO ONESPENA, HALA BADA

Otsailaren 22ko 3/2011 Foru Dekretuz Gipuzkoako Foru Diputazioaren Foru kontratazioen Zentrala sortu da, kontrataziorako Laguntza organo bat izango dena, hain zuzen, Gipuzkoako Lurralde Historikoko toki entitateetako kontratazio organoei laguntzeko, aipatu entitateak kontratazio sistema honi atxikitzen zaizkion neurrian.

Kontratazioen zentralak urriaren 30eko Sektore Publikoko Kontratuen 30/2007 Legearen 187 artikulua eta hurrengoetan xedatutakoaren arabera erregulatzen dira eta azaroaren 14ko Sektore Publikoko kontratuen Legearen 3/2011 Testu bateratuaren 203 artikulua eta hurrengoetan xedatutakoaren arabera.

Toki Administrazioaren eremuan, 188 artikuluan diputazioei kontratazio-zentralak sortzeko aukera ematen die, 189. Artikuluan aurreikusten du udal erakundeak eta sektore publikoko beste entitate batzuk kontratazio sistema horietara atxiki daitezkeela, komeni diren akordio edo hitzarmenak eginda.



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

Zentralizazioaren helburua entitate publikoen kontratazio jardueran eraginkortasun handiagoa lortzea da: alde batetik, kudeaketaren ikuspuntutik, ondasunak eta zerbitzuak eskuratzeko tramitazio administratiboa arintzen eta sinplifikatzen duelako; eta, beste aldetik, ekonomiaren ikuspuntutik, baldintza ekonomiko hobekak lor daitezkeelako, eta, horri esker, gastu publikoa txikitu.

Atxikipen honek ez dakar berekin kontratazio guztiak Foru Kontratazioen Zentralaren bitartez egin beharrik; Udal honen esku dago sistema hau ondasun, zerbitzu edo hornidura guztietarako edo batzuetarako bakarrik erabili erabakitzea.

Aurreko guzia ikusita, Udal batzak, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Alkizako Udal hau Gipuzkoako Foru Aldundiaren eskuratzeko zentralizatuko sistemari-Foru Kontratazioen Zentralari atxikitzen da.

BIGARRENA: Alkizako Udal hau Gipuzkoako Foru Aldundiaren eskuratzeko zentralizatuko Sistemari-Foru kontratazioen Zentralari atxikitzearen hitzarmena onartzea.

HIRUGARRENA: Alkatea behar bezala ahalmentzea, Udal honen izenean eta ordezkaritzan Gipuzkoako Foru Aldundiarekin dagokion hitzarmena sinatu dezan.

HAMAIKAGARREN PUNTUA

ESKOLA ONDOAN DAGOEN LOKALA, ESKOLA MODURA ERABILTZEKO, HAU ALOKATZEKO ONESPENA, HALA BADA

Ikusirik, Alkizako herri eskolak leku falta duela eta eskola ondoan lokal bat dagoela hutsik.

Ikusirik Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailak, on iritzia eman duela, eskola ondoan dagoen lokala, gela modura erabiltzea, bertan egin beharreko obrak Hezkuntzaren gain izango direlarik, eta berriz lokalaren errenta Udalaren gain.

Ikusirik aipaturiko lokalaren jabearekin adostu dela, lokalaren errenta, bere adostasuna azalduaz.

Gaia aztertutik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Alkizako Udalak, Alkiza Plaza 18. Zenbakian, herriko eskolaren ondoan, kokatzen den "Gure Txoko Etxea" izeneko eraikinean dagoen lokala, E.B. andrearen jabetzakoa dena, errentan hartzeko onespena ematea. Bertan CEP Alkiza BH1-ren gela berria ezartzeko.

BIGARRENA: Alkate-Lehendakari jauna ahalmenu, Alkiza Plaza 18. Zenbakian, herriko eskolaren ondoan, kokatzen den "Gure Txoko Etxea" izeneko eraikinean dagoen lokala errentan hartzeko kontratua, E.B. andrearekin sinatzeko.

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri E.B. ri ematea.

HAMABIGARREN PUNTUA

ESKOLA ONDOAN DAGOEN LOKALEAN, ESKOLA MODURA EGOKITZEKO EGINGO DIREN LANENTZAKO OBRA BAIMENA ESKAERA, HALA BADA

Ikusirik Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailak eginiko eskaera, non Alkiza Plaza 18 zenbakian, herriko eskolaren ondoan, kokatzen den "Gure Txoko Etxea" izeneko eraikinean dagoen lokalean ikasgela eta komunak egokitzeko obrak egiteko obra baimena eskaera egiten duen. Horretarako, lanen memoria bat, aurrekontu bat eta planoak aurkezten ditu.

Era berean, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailak, Udaletxe honi eskatzen dio goian aipaturiko lanak egiteagatik ordaindu beharreko eraikuntza, instalazioa eta obren gaineko zergatik salbuetsita egotea, egin behar dituen obrak Alkizako herri interesekoak direlako.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailak eskaturiko obra baimena onestea, hau da, Alkiza Plaza 18 zenbakian, herriko eskolaren ondoan, kokatzen den "Gure Txoko Etxea" izeneko eraikinean dagoen lokalean ikasgela eta komunak egokitzeko obrak egiteko obra baimena ematea.

BIGARRENA: Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailari eraikuntza, instalazioa eta obren gaineko zergatik salbuestea, egin behar



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

dituen obrak, Alkizako herri intereserako direlako.

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailari ematea.

HAMAHIRUGARREN PUNTUA **BESTE BATZUK**

Presazko arrazoiak direla eta gai zerrendan ez zeuden ondorengo puntuak aztertzea erabaki dute bertaratuek aho batez.

13.1. KUTXABANK S.A. AURKEZTUTAKO ALTXORTEGIKO KREDITUAREN PROPOSAMENAREN ONESPENA, HALA BADA

Ikusirik Alkizako Udalak interesa duela, Eusko Jaurlaritzak Udal honi esleitutako diru-laguntza baten barruan, Ernio Gazume Kontserbazio eremu bereziko gunearen barruan dauden terrenoak erosteko.

Ikusirik Alkizako Udalak aipaturiko inbertsio horri aurre egiteko KUTXABANK, S.A.ri 100.000,00 eurotako altxortegiko-kreditu bat eskatu diola.

Ikusirik Kutxabank S.A., Alkizako Udalari egin dion proposamena 100.000,00 eurotako altxortegiko-kreditua emateko, ondorengo delarik:

- ESKAINTZEN DEN KOPURUA: 100.000,00euro
 - EPEA: Sinadura datatik kontatzen hasita urtebete
 - AMORTIZAZIOA: Mugaegunean
 - INTERES-TASA: Aldakorra, urteko EURIBOR-a gehi %3,50 puntuko diferentziala. Kalkulo oinarria 360 egun
 - INTERESEN LIKIDAZIOA: Hiru hilabetetik behin
 - ALDAKETAKO EPEALDIA: Hiruhilekoa
 - BIRIBILTZEAREN ERAGINIK HANDIENA: Ez dago biribiltzerik
 - IREKIERA KOMISIOA: % 0,10
 - ERABILTZEAGATI-KOMISIOA: Erabili gabeko saldoengatik % 0,15 hiru hilean behin.
 - AURREZ KITATZEAGATI-KOMISIOA: Komisorik gabe
 - BERMEA: Udal finantzaketako Foru Fondo Funtsa eta Eusko Jaurlaritzatik Ernio-Gazume egitasmorako laguntzaren helbideraketa.
 - NOTARITZA ARTEKARI GASTUAK: Udaleko idazkariak sinatuko du fedatari gisa.
- Interesak hiruhilero sortzen dira, honako formula hau jarraituz:*
 $I=C.r.t./36.000$, non:
 $C=Epe$ barruan erabilitako Kapitala



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

r=interes nominala

t=likidatutako aldiaren egun naturalak

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: KUTXABANK, S.A, Alkizako Udalari egindako 100.000,00 eurotako altxortegiko-kredituaren eskaintzaren onespena, goian aipatzen diren baldintzekin.

BIGARRENA: Alkate-Lehendakari jauna ahalmenu, KUTXABANK, S.A., Alkizako Udalari egindako 100.000,00 eurotako altxortegiko-kredituaren eskaintza formalizatu eta bere esku jartzeko.

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri KUTXABANK, S.A-ri ematea.

13.2. BIDA TEKNOLOGIAREN BIDEZ EGINDAKO HERRIKO HONDAKIN URAK ARAZTEKO PLANTAN ATERATZEN DIREN UREN ANALISIA LABUR S.L. –ri(Laboratorio de Aguas y residuos, S.L.) ESLEITZEA

Ikusirik Bida teknologiaren bidez egindako herriko hondakin urak arazteko plantatik ateratzen den ura ez dela analizatzen, Ur Agentzira hauen analitikak hiru hilabetean behin igorri behar direlarik.

Ikusirik LABUR S.L. ri eskatu zaiola ur araztegitik ateratzen den ura analizatzeko aurrekontu bat, gutxi gora behera, 150 euro izanik.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Bida teknologiaren bidez egindako herriko hondakin urak arazteko plantatik ateratzen den uraren analisiak egiteko LABUR S.L. ri esleitzea, ur analisiak hiru hilabetetik behin egingo direlarik.

BIGARRENA: Erabaki honen berri interesdunari ematea.

HAMAL AUGARREN PUNTUA ERREGU, GALDERAK ETA MOZIOAK



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

14.1. “OSASUN ESKUBIDEA, PUBLIKOA ETA KALITATEZKOA “ ADIERAZPENERA ATXIKIPENA, HALA BADA

Ikusirik, ondorengo adierazpena aurkezten dela, ondorengoa diolarik:

“2011ko azaroan Inviza (Asunción klinikaren jabea) eta Osasun sailaren artean konbenio bat sinatu zuten Tolosalderako. Honen arabera, espezialitate guztiak ambulatorioetatik Klinikara pasako lirateke eta eskualdeko erreferentziazko ospitale bakarra Asunción Klinika izango litzateke, Donostia ospitalera zuzenean joateko aukera galduz.

Bere garaian, alkateok gure ardura plazaratu genuen egoera honek Tolosaldeko osasun arreta okerragoa izango zelakoaren zantzuak bagenituelako. Gaur egun, jakina da 2011ko azarotik hona, osasun arretan nabarmen egin duela okerrera. Espezialista titulu gabekoak tituludun lanak egiten, itxaron zerrenda luzeagoak, Donostia ospitalerako erreferentzialtasuna galtzea, mediku jubilatuak lanean etabar luze bat dira horren adibide.

Hori horrela Osasun eskualdea osatzen dugun 31 udalek, mozio bat onartu dugu non, konbenio aurreko egoerara bueltatzea eskatzen den (espezialidadeak ambulategietan eta bi erreferentzizko ospitale: Asunción eta Donostia ospitalea) eta Asunción publikatze bidean jarriko duen mahai bat osatzera deitzen dugun.

Askotan entzun ohi dugu, pribatuak publikoa osagarritzen duela. Tolosaldeko kasuan hau esatea gezur hutsa da. Konbenioan planteatzen dena pribatuak zerbitzu publikoa ordeztzea baita. Honetaz gain, pribatuaren helburu nagusia, errentagarritasun ekonomikoa da eta publikoaren kasuan berriz kalitatezko zerbitzua ematea. Beraz, argi geratzen da pribatizazio dela helburu eta ez ahal den zerbitzu onena eskaintzea.

Tolosaldeko alkateek, bilerak egin ditugu Osasun Sailarekin baina erantzuna beti berbera izan da. Ahal den informazio gutxiena eman eta garbi utzi publikazioa ez dela beraien plangintzetan sartzen.

Tolosaldeko herritar guztien ahotsa, Osasun Sailetik gutxiesten ari direla uste dugu. Gure herritarron osasun arreta kalitatezkoa izango bada, zerbitzu publiko bat ezinbestekoa dela ziur gaude eta berau lortzeko bidean jarraituko dugu. Gure herritarron osasuna ez delako negozioa eta instituzioen lana kalitatezko zerbitzuak bermatzea delako.



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

Horregatik, eskualdeko alkateek otsailaren 15ean eguerdiko 12etan Tolosako Triangulon "Osasun eskubidea, publikoa eta kalitatezkoa" lemapean egingo den manifestaldira joateko deia egin nahi diegu herritarroi."

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

BAKARRA: "Osasun eskubidea, publikoa eta kalitatezkoa adierazpena" Alkizako Udalbatzak, bere osotasunean onesten du.

Eta aztertu beharreko beste gairik ez dagoenez, Lehendakari Jaunak bilkura 22.15 etan amaitutzat eman du eta akta hau jaso da, etorri diren guztiek izenpetu dutena eta Idazkari naizen honek, aztertu denaren benetako adierazgarria dela uste duena.